| GETXOKO UDALEKO TOKIKO GOBERNUKO BATZARRAK 2020EKO URTARRILAREN 21EAN LEHENENGO DEIALDIAN EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA. | ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA POR LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO EL DÍA 21 DE ENERO DE 2020. |
|---|---|
| **B I L D U T A K O A K** | **ASISTENTES** |
| **LEHENDAKARIA** | **PRESIDENTA** |

Amaia Aguirre Muñoa And.

| **BATZARKIDEAK** | **V O C A L E S** |
|---|---|

Keltse Eiguren Alberdi And.
Irantzu Uriarte Gómez And.
Álvaro González Pérez Jn.
Ignacio Uriarte Gorostiaga Jn.
Joseba Arregui Martínez Jn.
Janire Ocio Celada And.
Iñigo Urkitza Yañez Jn.
Carmen Díaz Pérez And

| **IDAZKARI NAGUSIA** | **SECRETARIO GENERAL** |
|---|---|

Ignacio J. Etxebarria Etxeita jn.

Getxoko Udaletxean, bi mila eta hogeiko urtarrilaren hogeita batean eta Amaia Aguirre Muñoa alkate andrea bilerako buru dela, goizeko bederatzietan Tokiko Gobernuko Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Goian aipatutako zinegotziez gain, kontu-hartzaile nagusia, Nuria Hernández Soto andrea, izan da bertan.

En la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Getxo, a veintiuno de enero de dos mil veinte, y bajo la presidencia de la Sra. Alcaldesa, doña Amaia Aguirre Muñoa, se reunió a las nueve horas de este día, la Junta de Gobierno Local, para celebrar sesión ordinaria, con asistencia de los corporativos expresados, más la Interventora General, doña Nuria Hernández Soto.

Alkateak, legeak eskatzen duen kide-kopurua bildu dela ikusita, bilerari hasiera eman dio, eta jarraian, Deialdiko Aztergaien Zerrendan jasota dauden gaiak aztertu dira. Hauxe izan da emaitza:

La Alcaldesa, visto que existía número legal suficiente, declaró abierta la sesión, pasándose seguidamente a despachar los asuntos incluidos en el Orden del Día de la Convocatoria, con el resultado siguiente:

**8.- UDALEKO GOBERNU BATZARRAK 2020KO URTARRILAREN 14AN EGIN DUEN OHIKO BILERAKO AKTA ONESTEA.**

Aurreko ohiko bilerako akta onartu dute, 2020ko urtarrilaren 14ko bilerakoa, hain zuzen.

**8.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL ACTA DE LA ANTERIOR SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 14 DE ENERO DE 2020.**

Se aprobó el Acta de la anterior sesión ordinaria celebrada el día 14 de enero de 2020.

## ANTOLAKUNTZA ETA KONTUAK

**9.- BIZKAIA ZUBIKO KOMUNAK BIRGAITZEKO OBREN ADJUDIKAZIOA DELA-ETA JARRITAKO FIDANTZA ITZULTZEA.**

Kontratazio, Ondare eta Etxebizitza arloen zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

LEHENENGOA: Elkargi SGR enpresak (IFK: V-20066411) emandako abala itzuliko da. Abal hori BIZKAIA ZUBIKO PLAZAKO KOMUNAK BIRGAITZEKO OBREN kontratuaren, zeina Construcciones Zabalandi SL enpresari adjudikatu baitzitzaion, behin betiko bermea (4.915,80 euro) eratzeko jarri zuen.

Adierazitako itzulketa bidezkoa da; izan ere, aipatutako abal-emaileak aurre egin zion bermea konfiskatu

## ORGANIZACIÓN Y CUENTAS

**9.- DEVOLUCIÓN DE LA FIANZA DEPOSITADA CON MOTIVO DE LA ADJUDICACIÓN DE LAS OBRAS DE REHABILITACIÓN DE LOS BAÑOS DE LA PLAZA PUENTE BIZKAIA.**

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Patrimonio y Vivienda, se acordó:

PRIMERO: Devolver el aval otorgado por la entidad "Elkargi, S.G.R", con C.I.F. nº V-20066411, para la constitución de la garantía definitiva que por importe de 4.915,80 euros correspondía al contrato de las OBRAS DE REHABILITACION DE LOS BAÑOS DE LA PLAZA PUENTE BIZKAIA, adjudicado a la empresa "Construcciones Zabalandi, S.L.".

Dicha devolución procede por haber hecho frente la citada avalista a la incautación de la garantía debido a la

izanari, kontratuaren adjudikaziodunari egotzi ahal zaizkion arrazoiengatik kontratua suntsiaraztearen ondorioz.

BIGARRENA: Ebazpen hau Elkargi SGR enpresari eta Udaleko Diruzaintza Sailari jakinaraziko zaie, dagozkion ondorioak izan ditzan.

**10.- BIDE PUBLIKOAN ARRAPALA MEKANIKOEN PREBENTZIO- ETA ZUZENKETA-IZAERAKO MANTENTZE-ZERBITZUAREN ENPRESA ADJUDIKAZIODUNARI ZEHAPENA EZARTZEA, KONTRATUA EZ BETETZEAGATIK.**

Kontratazio, Ondare eta Etxebizitza arloen zinegotzi arduradunak proposatuta, honako erabaki-proposamen hau onartu da:

aurrekariak

Lehenengoa.- Tokiko Gobernu Batzarraren 2014-03-25eko ohiko bilkuran hartutako 97. erabakiaren bitartez, Schindler SA enpresari (IFK: A-50001726) adjudikatu zitzaion GETXO UDALERRIKO BIDE PUBLIKOAN ARRAPALA MEKANIKOEN PREBENTZIO ETA ZUZENTZE IZAERAKO MANTENTZE LANEN zerbitzua, 458.640 euroan. Kontratua betetzeko epea 4 (lau) urtekoa da, zerbitzua hasteko akta sinatu den egunetik hasita (2014-05-01).

Bigarrena.- Kontratazioa arautzen duten pleguetan (zehazki baldintza teknikoen pleguaren 1. apartatuan) jasotako betebeharretako bat arrapaletan mantentze-lanak egin bitartean horiek

resolución del contrato imputable a la adjudicataria del mismo.

SEGUNDO: Notificar la presente resolución a la empresa "Elkargi, S.G.R" y al Departamento de Tesorería municipal, a los efectos que correspondan.

**10.- IMPOSICIÓN DE PENALIDAD POR INCUMPLIMIENTO DEL CONTRATO A LA EMPRESA ADJUDICATARIA DEL SERVICIO DE MANTENIMIENTO PREVENTIVO Y CORRECTIVO DE LAS RAMPAS MECÁNICAS EN VÍA PÚBLICA.**

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Patrimonio y Vivienda, se decidió aprobar la siguiente propuesta de acuerdo:

antecedentes de hecho

Primero.- Mediante Acuerdo nº 97 adoptado por la Junta de Gobierno Local en sesión ordinaria celebrada el día 25/03/2014, se adjudicó a la mercantil “Schindler, S.A”, con C.I.F. nº A-50001726, el Servicio de mantenimiento preventivo y correctivo de las rampas mecánicas en vía pública del municipio de Getxo, por importe de 458.640€ y por un plazo de ejecución de 4 (cuatro) años, a contar desde la fecha del Acta de Inicio del Servicio (01/05/2014).

Segundo.- Una de las obligaciones incluidas en los pliegos que rigen la contratación, en concreto en el apartado 1 del Pliego de Condiciones Técnicas, es el asegurar la continuidad en el tiempo del

funtzionatzen jarraituko dutela bermatzea da; hala, arrapala bakoitzak hilean gutxienez % 95eko erabilgarritasuna izango duela bermatu beharko da (erabilgarritasuntzat joko da arrapala bakoitzaren benetako funtzionatze-orduen eta programatutako funtzionatze-orduen kopuruaren arteko zatidura, ehunekotan adierazita).

funcionamiento de las rampas a mantener, garantizando una disponibilidad mensual por rampa de al menos el 95 % (entendiéndose por disponibilidad el cociente entre el número de horas reales de funcionamiento de cada rampa y el número de horas programadas de funcionamiento de la misma, expresado en tanto por ciento).

Hirugarrena.- Tokiko Gobernu Batzordeak 2019-04-02ko bilkuran hartutako 166.erabakiaren bidez, aipatutako merkataritza-enpresari 6.608,40 euroko zehapena ezartzea xedatu zen, 2018ko abenduan bi arrapaletan aipatutako gutxieneko erabilgarritasuna bermatzeko betebeharra ez zuelako bete.

Tercero.- Mediante acuerdo nº166 adoptado por la Junta de Gobierno Local en su sesión de fecha 02/04/2019, se dispuso imponer una penalidad de 6.608,40 euros, a la mercantil citada por el incumplimiento de su obligación de garantizar la citada disponibilidad mínima en dos de las rampas, durante el mes de diciembre de 2018.

Laugarrena.- Tokiko Gobernu Batzordeak 2019-05-07ko bilkuran hartutako 203. erabakiaren bidez, adjudikaziodunari 7.918 euroko zehapena ezartzea xedatu zen, 2019ko urtarrillan hiru arrapalatan aipatutako gutxieneko erabilgarritasuna bermatzeko betebeharra ez zuelako bete.

Cuarto.- Mediante acuerdo nº203 adoptado por la Junta de Gobierno Local en su sesión de fecha 07/05/2019, se dispuso imponer a la adjudicataria una nueva penalidad de 7.918 euros por el mismo incumplimiento de su obligación de garantizar la citada disponibilidad mínima en tres de las rampas en el mes de enero de 2019.

Bostgarrena.- 2019-03-20an, kontratua gauzatzeaz arduratzen den sailak txosten berri bat egiten du, eta hor, ez-betetze bera jasotzen da. Pleguetan eskatutakoaren arabera, arrapala batzuek ez zuten gutxieneko erabilgarritasunaren baldintza bete, 2019ko urrian eta azaroan.

Quinto.- En fecha 09/01/2020, el Departamento responsable de la ejecución del contrato emite un nuevo informe en el que refiere el mismo incumplimiento, consistente en la falta de disponibilidad mínima de varias de las rampas conforme a lo exigido en pliegos, si bien en referencia a los meses de de octubre y noviembre de 2019.

Ondoren, txostenak arau-haustea egiaztatzeko eta horren ondoriozko zehapenaren zenbatekoa zehazteko erabilitako metodologia adierazten du, arrapal bakoitzaren egoearen

El informe recoge a continuación la metodología empleada para la constatación de la infracción descrita y la determinación de la sanción a imponer, adjuntando dos anexos relativos al

erregistroak eta grafikoei buruzko bi eranskin eransten dituelarik. Azkenik zehapena 18.826 eurokoa izan behar dela dio.

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

I.- Aztergai dugun kontratu-espediente honen hasiera-data kontuan hartuz, aplikatu beharreko oinarrizko legedia hau da:

- Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu bategina (SPKLTB), azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsia.
  Zehazki, SPKLTBren 212. artikuluak kontratua akatsekin gauzatzearen ondoriozko zehapenen ezarpena arautzen du.

- Maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua, kontratuen legearen zati bat garatzen duena, SPKLTBaren aurka egiten ez duen guztian.

- Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen araudi orokorra, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuak onetsia, SPKLTBaren aurka egiten ez duen guztian.

II.- Kasu honetan, kontratuaz arduratzen diren zerbitzu teknikoek egiaztatutakoaren arabera, arrapal guztietan %95eko gutxienezko eskuragarritasuna izatea ez da bete.

Jarritako zehapenaren proportzionaltasunari dagokionez,

registro de estados de cada rampa y sus correspondientes gráficos. Termina cifrando la sanción en 18.826 euros, por aplicación de la infracción específica recogida en el apartado 11 del PCT.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

I.- En atención a la fecha en que se inició el expediente contractual del que tratamos, la legislación básica aplicable es la siguiente:

- Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público (TRLCSP), aprobado por el Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre.

  En concreto, el artículo 212 TRLCSP regula la imposición de penalidades por ejecución defectuosa del contrato.

- Real Decreto 817/2009, de 8 de mayo, por el que se desarrolla parcialmente la ley de contratos, en lo que no se oponga al TRLCSP.

- Reglamento general de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas aprobado por Real Decreto 1098/2001, de 12 de octubre, en lo que no se oponga al TRLCSP.

II.- En el caso presente, se ha constatado por los servicios técnicos responsables del contrato que se ha producido la infracción de la obligación de mantener una disponibilidad mínima del 95% en todas las rampas.

En cuanto a la proporcionalidad de la sanción a imponer, en aplicación de

SPKLTBren esandako 212.1. artikulua aplikatuz, kasu honetan betetzen da: orain arte ezarritako zehapenak kontuan hartuta ere, proposatzen denaren gain, ez da atzematen manuak dioen %10a (kontratuaren zenbatekoaren %8,80an geratzen da)

dispuesto en el citado artículo 212.1 TRLCSP, en el caso presente se respeta tal principio, ya que incluso teniendo en cuenta las sanciones impuestas hasta ahora, además de la que ahora se propone, no se alcanza el porcentaje máximo del 10% al que se refiere el precepto (queda en un 8,80% del importe del contrato).

III.- Zehapenak ezartzeko eskumenari eta prozedurari dagokionez, aipatutako manuaren 8. apartatuak xedatzen du kontratazio-organoari dagokiola (kasu honetan Tokiko Gobernu Batzarrari), aurretiko eskaerarik behar ez duen eta berehala betearaziko den erabakiaren bidez. Ezarritako zehapenak eraginkorrak izateko, kontratistari ordaintzeko kopuruetatik kenduko zaio.

III.- En cuanto a competencia y procedimiento para imponer penalidades, el apartado 8 del precepto citado dispone que corresponde al órgano de contratación -que en el caso presente es la Junta de Gobierno Local-, mediante acuerdo que no requerirá intimación previa y que será inmediatamente ejecutivo, haciéndose efectivas las penalidades impuestas mediante deducción de las cantidades a abonar al contratista.

AKORDIO PROPOSAMENA

PROPUESTA DE ACUERDO

Lehenengoa: “Schindler, S.A. enpresari (IFK: A-50001726) 18.826,00 euroko zehapena ezartzea, Getxo udalerriko bide publikoan arrapala mekanikoen prebentzio eta zuzentze izaerako mantentze lanen zerbitzuko kontratuak barne hartzen dituen hainbat arrapaletan gutxieneko erabilgarritasuna bermatzeko betebeharra ez betetzeagatik (2019ko urrian eta azaroan). Zehapen hori ebazpen honen aurrekarietan eta udaleko Zerbitzu Teknikoek egindako txostenean azaldutako parametroekin bat etorriz ezarri da.

Primero: imponer una penalidad de 18.826,00 euros, a la mercantil “Schindler, S.A.”, con C.I.F.: A-50001726, por el incumplimiento de su obligación de garantizar la disponibilidad mínima (correspondiente a los meses de octubre y noviembre de 2019) la de varias de las rampas cuyo mantenimiento se encuentra dentro del Contrato de servico de mantenimiento preventivo y correctivo de las rampas mecánicas en vía pública del municipio de Getxo. Dicha penalidad se impone de acuerdo con los parámetros descritos en los antecedentes de esta resolución y el informe emitido por los servicios técnicos municipales.

Bigarrena: Kontratuaren barne kontratistari ordaindu behar zaizkion fakturetatik esandako 18.826,00 euroko kopurua kenduko zaizkio hurrengoan edo hurrengoetan.

Segundo: Deducir la antedicha cantidad de 18.826,00 euros de la próxima o próximas facturas que hayan de abonarse a la contratista mencionada dentro del

contrato.

Hala, ebazpena udaleko Kontu-hartzailetzari eta Diruzaintzari jakinaraziko zaie.

A tales efectos, esta resolución será notificada a la Intervención y a la Tesorería municipales.

Hirugarrena:- Ebazpen honen berri ematea kontratuaren adjudikaziodunari, ebazpen honen laugarren aurrekarian adierazitako txostenaren kopiarekin batera.

Tercero: Notificar la presente resolución a la adjudicataria del contrato, junto con copia del informe referido en el antecedente cuarto de esta resolución.

**LURRALDEA**

**11.- LEIOA ETORBIDEKO 23AN OBRA LIZENTZIA EMATEA FAMILIA BAKARREKO BI ETXEBIZITZA ELKARRI ATXIKITA ERAIKITZEKO.**

Hirigintza-plangintza, Kudeaketa, Diziplina eta Udal Eraikinak Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

LEHENENGOA.- Hirigintzako Aprobetxamenduen Transferentzien Erregistroan berariaz jasota uztea, JAVIER BAYO BASTERRICA jaunak Getxoko Leioa etorbideko 23an familia bakarreko bi etxebizitza elkarri atxikita eraikitzeko sustatutako esku hartzeak honako hau dakarrela: ereduzko aprobetxamendua aplikatzetik sortutako aprobetxamenduaren (365,39 aprobetxamendu unitate) eta proiektuaren eraikigarritasun haztatuaren (356,84 aprobetxamendu unitate) artean 8,55 aprobetxamendu unitateko aldea egongo da, eta erregistro horretan inskribatuko da, JAVIER BAYO BASTERRICA jaunaren alde.

BIGARRENA.-
I.- Eskatutako obra lizentzia ematea

**TERRITORIO**

**11.- CONCESIÓN DE LICENCIA DE OBRAS PARA LA CONSTRUCCIÓN DE 2 VIVIENDAS UNIFAMILIARES ADOSADAS EN LA AVDA. DE LEIOA, 23.**

A propuesta del concejal responsable del Área de Planeamiento, Gestión y Disciplina Urbanística y Edificios Municipales, se acordó:

PRIMERO.- Dejar constancia expresa en el Registro de Transferencias de Aprovechamientos Urbanísticos, que la intervención promovida por D. JAVIER BAYO BASTERRICA para la construcción de 2 viviendas unifamiliares adosadas en Avda. de Leioa nº 23 de Getxo, supone la existencia de una diferencia entre el aprovechamiento derivado de la aplicación del aprovechamiento tipo (365,39 U.A.) y la edificabilidad ponderada del proyecto (356,84 U.A.) de 8,55 U.A. que se inscribirán en tal Registro a favor de D. JAVIER BAYO BASTERRICA.

SEGUNDO.-
I.- Conceder a D. JAVIER BAYO

JAVIER BAYO BASTERRICA jaunari, Getxoko Leioa etorbideko 23an familia bakarreko bi etxebizitza elkarri atxikita eraikitzeko, honako dokumentu hauei jarraituz: 2018ko azaroan aurkeztutako oinarrizko proiektua (sarrera-erregistroa: 39104/2018, abenduaren 5ekoa), FORASTER ARQUITECTOS SLPko Jose Ramón Foraster Bastida arkitektoak egina; hots-inpaktuaren azterketa, ACC CENTRO DE ACÚSTICA APLICADAk egina, 2018-11-26koa; eta Bizkaiko Foru Aldundiko Kulturako zuzendari nagusiaren 2019ko apirilaren 9ko 61/19 Ebazpena. Honako baldintza hauek bete beharko ditu:

Lizentzia hau eman zaiolako jakinarazpena jaso eta 60 egun naturaleko epean, eta betiere obrak hasi aurretik, honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

- Egikaritze-proiektua.
- Kalitate-kontroleko programa.
- Segurtasun eta osasun azterketa.
- Hondakinen kudeaketari buruzko azterketa
- Telekomunikazio-azpiegitura komunen proiektua.
- Garajea instalatzeko proiektua, horrek behar dituen obrekin.
- Urbanizazioaren proiektua edo eranskina. Bertan jasorik eta zehazturik egongo dira fatxaden aurrean, lur-zatiaren itxituretan eta espazio publikoetan (edo obrak amaitzean espazio publiko izango direnetan) egingo diren urbanizazio obrak eta instalazioak, ur, saneamendu, bide, argi publiko eta lorezaintza zerbitzuetan eragina dutenak, halakorik bada. Hori guztia bat etorriko da HAPOn zehaztutakoarekin eta hurrengo apartatuetan jasotakoarekin, eta

BASTERRICA la licencia de obras solicitada para la construcción de 2 viviendas unifamiliares adosadas en Avda. de Leioa nº 23 de Getxo, según Proyecto Básico presentado de fecha noviembre de 2.018 (Registro de entrada nº 39104/2018, de 5 de diciembre), redactado por el arquitecto D. Jose Ramón Foraster Bastida, de FORASTER ARQUITECTOS, S.L.P., Estudio de Impacto Acústico redactado por AAC CENTRO DE ACÚSTICA APLICADA de fecha 26.11.18 y Resolución nº 61/19, de 9 de abril de 2.019, del Sr. Director General de Cultura de la Diputación Foral de Bizkaia, debiendo cumplir las siguientes condiciones:

En el plazo de 60 días naturales a partir del recibo de la comunicación del otorgamiento de esta licencia, y siempre antes del comienzo de las obras, deberá presentar la siguiente documentación:

- Proyecto de Ejecución.
- Programa de control de calidad.
- Estudio de Seguridad y Salud.
- Estudio de Gestión de Residuos.
- Proyecto de Infraestructuras Comunes de Telecomunicación.
- Proyecto de instalación de garaje, con las obras que conlleve.
- Proyecto o Anexo de Urbanización donde queden recogidas y definidas las obras de urbanización e instalaciones a ejecutar frente a las fachadas, los cierres de la parcela y en los espacios públicos o que vayan a pasar a serlo tras las obras y que afecten a los servicios de Agua, Saneamiento, Vialidad, Alumbrado Público y Jardinería en su caso, todo ello conforme a lo definido en el PGOU y a lo recogido en los apartados siguientes, siendo imprescindible su presentación

ezinbestekoa izango da hura txosten honetan ezarritako irizpideen arabera aurkeztu eta gauzatzea.

y ejecución acorde con los criterios incluidos en el presente informe.

Egikaritze-proiektuaren garapenean honako alderdi hauek kontuan izan behar dira, eta euren araberako zuzenketak egingo dira:

En el desarrollo del Proyecto de Ejecución se tendrán en cuenta y se harán las correcciones derivadas de los siguientes aspectos:

- Lurzati-itxiturak zehaztuko dira, hots-inpaktuaren azterketaren gomendioei jarraituz eta babes akustikoa sortuz, ahal dela, baina itxiturei buruz indarra duen ordenantzan adierazitako garaierak eta ezaugarriak errespetatuz.
- Barrualdeko gela bakoitzean kalitate akustikoko helburuak bermatu ahal izateko adinako isolamenduak justifikatuko dira. Gutxieneko isolamendua 30dB(A)-koa izango da, baina gomendatzen da gaur egungo hiri bideetara ematen duten fatxadetako logeletan isolamendu hobea jartzea, 32 dB(A)-koa. Erabili beharreko beira eta arotzeria motak adieraziko dira, fatxadako baoen azalera eta barrualdeko gelen neurriak kontuan izanik.

- Se detallarán los cierres de parcela, tratando de seguir las recomendaciones del Estudio Acústico, y generar una protección acústica, pero respetando las alturas y características señaladas en la ordenanza de cierres vigente.
- Se justificarán los aislamientos necesarios para poder garantizar los Objetivos de Calidad Acústica para cada estancia interior, siendo necesario un aislamiento mínimo de 30dB (A), aunque se recomienda la mejora del aislamiento en los dormitorios de las fachadas orientadas hacia los viales urbanos existententes hasta los 32 dB(A). Se indicará el tipo de vidrios y carpintería a utilizar, teniendo en cuenta la superficie de hueco de la fachada y las dimensiones de las estancias interiores.

Kudeaketa Araubidearen 40. artikuluko (3288/78 Errege Dekretua) baldintzak kontuan izango dira eta bete egingo dira.

Se tendrán en cuenta las condiciones y el cumplimiento de los requisitos del Artículo 40 del Reglamento de Gestión (R.D. 3288/78).

Eraikuntzaren sestra eta lerrokadurak beraren zuinketa akta egiteko unean doituko dira.

La rasante y alineaciones de la edificación se ajustarán en el momento del Acta de Replanteo de la misma.

Lanak amaitutakoan, honako dokumentazio hau aurkeztuko da:

Al finalizar los trabajos se presentará la siguiente documentación:

- Obra-amaierako ziurtagiria eta likidazioa, teknikari eskudunek sinatuta eta dagozkien profesional elkargoek ikus-onetsita.

- Liquidación y certificado final de las obras, suscritos por los técnicos competentes y visados por los Colegios Profesionales correspondientes.

- Eraikuntzaren argazkiak, koloretan eta ikuspegi guztietatik eginak.
- Dokumentazio horrekin batera, 401/03 Errege Dekretuaren 9. artikuluarekin bat etorriz, buletina aurkeztuko da, bai eta, hala behar denean, Telekomunikazioetako Azpiegitura Komunei buruzko ziurtagiriak ere, kasuan kasuko elkargo ofizialak ikus-onetsita.
- Eraikuntza eta eraispeneko hondakin eta materialen kudeaketari buruzko amaierako txostena, 112/2012 Dekretuaren 6. artikuluan eta III. eranskinean azaltzen diren edukia eta norainokoa izango dituena.
- Eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria, lortutako kalifikazio orokorrarekin.
- Eraikitakoa Foru Ogasunean alta eman izanaren ziurtagiria, OHZren ondorioetarako.
- Gela guztien barruan kalitate akustikoko helburuak betetzen direla egiaztatu ahal izateko egindako probak eta neurketak.
- Urbanizazioaren amaierako egoeraren plano topografiko digitalizatua. Bertan urbanizazioaren elementu guztiak zehaztuko dira, baita instalatu edo aldatu diren eta Udalarenak direnak (edo izango direnak) ere: hiri altzariak, lorategiak, zoladura etab. Lurzoru publikoan zehar doazen edo lurzoru publikoan dauden ur, saneamendu, drainatze eta argiztapen sareen obra amaierako planoak ere aurkeztu behar dira, titulartasun publikokoak nahiz pribatukoak izan, plano topografiko hori bera oinarri hartuta. Plano topografikoa egiterakoan, Delineazio Zerbitzuak ezartzen dituen baldintzak beteko dira. Obra amaierako dokumentazio grafikoa euskarri informatiko alfanumeriko eta grafikoan

- Fotografías a color de la edificación desde todos los puntos de vista.
- Deberá acompañar a esta documentación, de acuerdo con el R.D. 401/03, en su artículo 9, el oportuno Boletín y en su caso certificados referentes a las Infraestructuras Comunes de Telecomunicación, visado por el Colegio Oficial correspondiente.
- Informe final de la gestión de residuos y materiales de construcción y demolición, con el contenido y alcance que se señala en el art. 6 y en el anexo III del Decreto 112/2012.
- Certificado de Eficiencia Energética con la calificación global obtenida.
- Justificante de haber dado de alta lo construido en Hacienda Foral a efectos del I.B.I.
- Ensayos y mediciones acústicas para la comprobación de los OCAs en el interior de las diferentes estancias.
- Plano topográfico digitalizado del estado final de la urbanización, en el que se detallarán todos los elementos de la misma, incluso los que han sido instalados o modificados y que sean o vayan a pasar a ser de titularidad municipal: mobiliario urbano, jardinería, pavimentación…así como los planos fin de obra de las redes de agua, saneamiento, drenaje y alumbrado que discurran por o se ubiquen en suelo público, ya sean de titularidad privada o pública, que tendrán como base ese mismo plano topográfico. El plano topográfico se realizará siguiendo las condiciones que desde el Servicio de Delineación sean establecidas. La documentación gráfica fin de obra deberá de presentarse en soporte informático alfanumérico y

aurkeztu behar da, Udalaren SIG-GIS sistemarekin bateragarria dena.

gráfico compatible con el sistema SIG-GIS municipal.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean xedatutakoari jarraikiz —"ibilgailuen zaintokia" jarduera lege horren II. B) eranskinean jasota baitago jarduera sailkatuaren aldez aurreko jakinarazpenaren mendeko jarduera gisa—, behin instalazioak hasteko prest daudenean, aipatutako jakinarazpena aurkeztu beharko da, dokumentazio honekin batera:

En cumplimiento de lo dispuesto en la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, al estar la actividad de "Guardería para vehículos" incluida en el Anexo II B) como actividad sometida a comunicación previa de actividad clasificada, una vez que las instalaciones se encuentren habilitadas para su inicio, deberá presentarse la citada comunicación acompañada de la siguiente documentación:

- Jardueraren deskribapena eta jarduerak ingurumenean, pertsonengan edo haien ondasunetan izan dezakeen eragina murrizteko hartutako neurriak jasotzen dituen memoria.

- Memoria, en la que se incorpore la descripción de la actividad y de las medidas implantadas para minimizar el posible impacto de la actividad en el medio ambiente, las personas o sus bienes.

- Teknikari eskudun batek emandako ziurtagiria, honako hau ziurtatzen duena: jarduera eta instalazioak eraikuntza-proiektuarekin eta aurkeztutako dokumentazio teknikoarekin bat datozela, eta ingurumen baldintza guztiak betetzen dituztela, ingurumen-inpaktuaren adierazpenean jasotako baldintzarik barne, halakorik bada.

- Certificación expedida por persona técnica competente que acredite que la actividad y/o las instalaciones se adecuan al proyecto constructivo y la documentación técnica presentada y que cumple todos los requisitos ambientales, inlcluidos, en su caso, los recogidos en la correspondiente declaración de impacto ambiental.

Baldintza hauek bereziki hartuko dira kontuan:

Se tendrán especialmente en cuenta las siguientes condiciones:

OROKORRAK

GENERALES

Obrak hasi baino lehen, udal teknikariek zuinketa onetsi beharko dute. Aldez aurretik behar den dokumentazio grafikoa bidali beharko da, instalazioen oraingo egoera eta kokapena zehazteko. Horrenbestez, obrak amaitu ostean detektatzen den

Antes de iniciar las obras, el replanteo de las mismas deberá de ser aprobado por los técnicos municipales, remitiendo previamente la documentación gráfica precisa para determinar el estado y situación actual de las instalaciones. Se entiende que

kalte edo hondatze oro obrei egotzi ahal izango zaie.

todo daño o deterioro detectado con posterioridad a las obras será imputable a éstas.

Gogoeta orokor modura, udal eskumeneko sareetan, eskatzaileak ez du baimenik izango udal instalazioak maniobratzeko Udaleko Zerbitzu Teknikoen adostasuna eta presentzia eta/edo baimena ez baditu.

Como consideración general, el peticionario no está autorizado a la maniobra de instalaciones municipales sin el acuerdo y presencia y/o autorización de los Servicios Técnicos municipales en las redes de competencia municipal.

Arestian azaldutakoa betetzen ez bada, Azpiegitura eta Zerbitzu Sailak bertan behera utziko du eskatutako lizentzia, behar diren ondorioetarako.

El incumplimiento de lo anteriormente señalado vendrá a anular la licencia solicitada por parte del departamento de Infraestructura y Servicios, a los efectos oportunos.

URA ETA SANEAMENDUA

AGUA Y SANEAMIENTO

Aurkeztu beharreko urbanizazio proiektuak edo eranskinak ezinbestean jasoko ditu bai lurzatiaren hornidurarako konponbideak bai lurzatiaren saneamendukoak; konponbide horiek honako baldintza hauek beteko dituzte:

En el Proyecto o Anexo de Urbanización a presentar se deberán presentar las soluciones tanto para el abastecimiento como para el saneamiento de la parcela, que deberá cumplir las siguientes condiciones:

Ur-hornidura:

Abastecimiento de agua:

Hargune berri bat egingo da Juan Prado kaleko 150 mm-ko udal hodian.

Se ejecutará una nueva acometida de la tubería municipal de ø150mm de la calle Juan Prado.

Udal sareko hargune horretan burdinurtuzko hartze-balbula jarriko da, eta gero bola-balbula instalatuko da lurzoru publikoaren eta lurzoru pribatuaren arteko mugan (lurzatiko mugaren eta banaketa-hodi nagusiaren arteko distantzia metro batekoa edo handiagoa bada).

La acometida a la red municipal se ejecutará con la correspondiente válvula toma de fundición y posteriormente se instalará la válvula de bola en el límite de suelo público y suelo privado (en caso de que la distancia entre el límite de parcela y la tubería general de distribución sea >1 metro).

Suteetarako ur-hargunea behar izanez gero, hornidurarako ur-hargunetik bereizita egingo da, eta burdinurtuzko

En caso de necesitar acometida de incendios, ésta se realizará independientemente de la toma de

hartze-balbula izango du.

agua y con la correspondiente válvula de toma de fundición.

Estolderia:

Alcantarillado:

Zatika egingo da hargunea, PVCzko ø315 mm-ko hodiarekin, Leioa etorbidean dauden udal-kolektoreetan.

Se acometerá separativamente, con tubería de PVC ø315mm, a los colectores municipales existentes en la Avda. de Leioa.

Hargunea egiten zaien kutxatilak behar bezala birjarriko dira, hodiak jasoz eta kaina erdia baldintza berriei egokituz.

Se repondrán correctamente las arquetas a las que se acometa, recibiendo los tubos y adaptando la media caña a las nuevas condiciones.

Orain dagoen espaloian aldaketarik egin behar bada, hustubideak egingo dira 25 metro bakoitzeko edo azaleko urak ebakuatzeko beharrezkoak diren puntuetan. Hustubideak udal kutxatiletan egingo dira, 200 mm-ko diametroko hodien bidez.

En el caso de tener que ejecutar modificaciones de la acera existente, se instalarán sumideros cada 25 metros o en los puntos que sea necesario para evacuar las aguas superficiales. Los sumideros se acometerán en arquetas municipales mediante tuberías de ø200mm.

Saneamenduko eta hornidurako elementu guztiak Udalak adierazitako xehetasunen arabera egingo dira.

Todos los elementos, tanto de saneamiento como de abastecimiento, se ejecutarán según detalles municipales.

BIDEAK

VIALIDAD

Obrak hasi baino lehen, plano bat aurkeztu beharko da, zolatu beharreko eremua definituko duena. Hala eta guztiz ere, fatxadaren aurrealdean egingo den espaloian eta zerbitzuak egitean ukitzen diren bide publikoko zonetan, eman beharreko zoladurak baldintza hauek beteko ditu:

Antes del inicio de las obras deberá presentarse un plano en el que se defina el ámbito de la superficie a pavimentar, no obstante tanto en la acera a ejecutar en el frente de fachada como en las zonas de la vía pública afectadas por la ejecución de los diferentes servicios, el pavimento a ejecutar se ajustará a las siguientes indicaciones:

Zangak egiteko ukituko den zona osoa eta lehendik dagoen zoladuran sor litezkeen kalteak zolatu beharreko eremuan sartu beharko dira, irizpide orokor hauen arabera:

La superficie a pavimentar deberá incluir a toda la zona afectada por la ejecución de las zanjas y posibles daños causados al pavimento existente de acuerdo con los siguientes criterios generales:

ZANGA GALTZADAN

Galtzadan zangen goiko errematea honako hau izango da: 5 cm berotako aglomeratu asfaltiko, AC11 surf 50/70 D motakoa, agregakin ofitikoarekin, eta 25 cm hormigoi, HNE-20/B/20 motakoa, zabor-legarrezko betelanaren gainean. Galtzadako bide-zorua (goiko hormigoia zein aglomeratua) birjarri egingo da, zangaren zabalera baino gutxienez 40 cm zabalago izateko moduan (20 cm alde bakoitzean). Galtzadako gurutzaguneen kasuan, errodadura zoladura birjartzerakoan, lehendik dagoen zoladurarekiko ebaki lerroak perpendikularrak izango dira zintarriarekin. Jarduketa kaleen arteko bidegurutzean gertatzen bada, aglomeratua bidegurutzearen azalera osoan birjarriko da. Aparkalekua edo zirkulazio-erreia ukitzen badira, haien zabalera osoan birjarriko da errodadura-zoladura, eta ebaki lerroak zintarriarekin perpendikularrak izateko moduan. Ebaketa guztiak ebakigailu mekanikoz egingo dira, eta zoladura eman ondoren zigilatu egingo dira. Errodadura-geruza oinarriko hormigoia isuri ondoko 10 egunetan birjarriko da; ondoren, ukitutako seinale horizontalak birjarriko dira, osagai bikoitzeko pinturarekin.

ZANJA EN CALZADA

El remate superior de las zanjas en calzada será, de 5 cm. de aglomerado asfáltico en caliente tipo AC 11 surf 50/70 D con árido ofítico, y 25 cms de hormigón HNE-20/B/20, sobre relleno de zahorra artificial. El firme de la calzada (tanto el hormigón superior como el aglomerado) se repondrá en una anchura al menos 40 cms mayor (20 cms a cada lado) que la anchura de la zanja. En el caso de cruces de calzada, la reposición del pavimento de rodadura se ejecutará de forma que los cortes con el pavimento existente serán perpendiculares al bordillo. En el caso de realizar la actuación en una zona de intersección de calles, el aglomerado se repondrá en la superficie total del cruce. En el caso de afectar al aparcamiento o carril de circulación la reposición del pavimento de rodadura se realizará a toda la anchura de los mismos y de modo que los cortes sean perpendiculares con el bordillo. Todos los recortes serán realizados con cortadora mecánica, procediendo a su correspondiente sellado una vez pavimentado. La reposición de la capa de rodadura se efectuará dentro de los 10 días siguientes al vertido del hormigón de base y seguidamente se repondrá la señalización horizontal afectada con pintura de doble componente.

ZANGA ESPALOIAN ETA/EDO OINEZKOENTZAKO EREMUAN

Espaloietako goiko errematea baldosa hidraulikoa izango da, eta, gutxienez, 10 cm hormigoi, HNE-20/B/20 motakoa. Espaloiko pasabideetan hormigoiaren lodiera 20 cm izango da. Oinezkoentzako guneetan, lehendik

ZANJA EN ACERA Y/O ZONA PEATONAL

El remate superior en aceras, será de baldosa hidráulica y, como mínimo, 10 cms de hormigón HNE-20/B/20. En los vados de acera el espesor de hormigón será de 20 cms. En las zonas peatonales, en las que el acabado existente no sea

dagoen akaberaren berdina jarriko da, baldosa izan ezik. Lanak hasi aurretik eduki behar dira prest akabera berria egiteko materialak. Gainera, bide-zoruen sortaren birjarpena gutxienez 20 cm handiagoa izango da egin beharreko zangaren alde bakoitzetik, eta baldosa osorik egongo da, mozketarik gabe; lanak egitean kaltetzen diren guztiak ordeztu beharko dira. Oinezkoentzako zonen akaberarako materialak orain bertan dagoen materialaren ezaugarri berak izan behar ditu, zona horretan kalte estetikorik ez egiteko eta material horren osotasun estrukturala bermatzeko. Bidea mantentzeko eta garbitzeko ibilgailuen zirkulazioari eusteko modukoa izan behar da.

Zangen birjarpena egin behar den zonak gorabehera, espaloi eta/edo galtzadaren tarte osoa egikaritu behar den zonetan bide-zoruaren ezaugarri orokorrak hauek izango dira:

ESPALOIA:

- 10 cm-ko lodierako oinarri-azpia, zabor legarrezkoa.
- 10 cm-ko lodierako oinarria, hormigoizkoa, HNE-20/B/20.
- Granitozko zintarria, 15x25 cm-koa, alakatua.
- Orain dagoen zoladuraren ezaugarri berdinetako zoladura:

Espaloian, Bilbo motako baldosa hidraulikoa, 30x30x4 cm-koa.
Oinezkoentzako guneetako ehundura zimurreko baldosa 40x40x4 cm-koa izango da.
Galtzada-harriek eta baldosa granitikoek eta/edo granitozkoek gaur egun daudenen moduko neurriak eta

con baldosa, este se realizará con el mismo acabado al existente, disponiendo de los materiales necesarios para dicha reposición previo al inicio de los trabajos. Además la reposición del paquete de firmes será al menos 20 cms mayor por cada lado de la zanja a realizar y a baldosa completa sin cortes, reponiendo todas aquellas que pudieran verse afectadas por la ejecución de los trabajos. El material de acabado de zonas peatonales será de idénticas características al existente en la zona de cara a evitar posibles daños estéticos, así como asegurar la integridad estructural del mismo material capaz de soportar el tráfico de los vehículos de mantenimiento y limpieza viaria.

Con independencia de las zonas en las que se ha de llevar a cabo la reposición de zanjas, las características generales del paquete de firme a ejecutar en las zonas en las que haya de ejecutarse tramo entero de acera y/o calzada tendrá las siguientes características:

ACERA:

- Sub- base de 10 cms de espesor de zahorra artificial.
- Base de 10 cms de espesor de hormigón HNE-20/B/20 .
- Bordillo de granito de 15x25 cms , achaflanado.
- Pavimento de características iguales a las existentes :

La baldosa de la acera hidráulica tipo Bilbao de 30x30x4 cms.
La baldosa de textura rugosa de las zonas peatonales será de 40x40x4 cms.

El adoquín y las losas graníticas y/o de granito serán de las medidas y características materiales iguales al

ezaugarri materialak izango dituzte.

GALTZADA:

- 20 cm-ko lodierako oinarri-azpia, zabor-legarrezkoa.
- 20 cm-ko lodierako oinarria, hormigoizkoa, HM-20/P/25/I.
- 5 cm-ko lodierako errodadura geruza, berotako nahaskin bituminosokoa, AC16 surf 50/70 D.

Aurkeztutako dokumentazioa gorabehera, hauxe nabarmendu behar da:

• Garajerako sarbide bakarra egongo da komunitate bakoitzeko, eta Leioa etorbidetik planoek definitukoa izango da; beraz, Juan Prado kaletik dagoen sarbidea kendu egin beharko da espaloia urbanizatzean.

• Gerta daitezkeen ukipenak gorabehera, dagoen espaloiaren kotak, oinezkoen ibilbideari dagokionez, mantendu egingo dira. Espaloiaren aurrerapena egin beharko da aparkatzeko zonan. Koten doikuntza, galtzadatik espaloira, sarbiderako, aurrerapen horretan egingo da.

• Ibilgailuentzako sarbideak granitozko zintarria eduki behar du, 15x20 neurrikoa, orain dagoenaren ezaugarri berdinak dituena, eta udal teknikariekin egingo den zuinketaren araberakoa. Hori, betiere, erantsitako xehetasunei lotuko zaie.

Aipatutako aurrerapen horri eragiten dioten espaloiko aldaketak zuinketaren eta in situ emandako jarraibideen arabera egin beharko dira. Dena den, edozein kasutan, eta zeharkako maldari nahiz luzetarako maldari dagokienez,

existente.

CALZADA:

- Sub- base de 20 cms de espesor de zahorra artificial.
- Base de 20 cms de espesor de hormigón HM-20/P/25/I.
- Capa de rodadura de mezcla bituminosa en caliente AC 16 surf 50/70 D de 5 cms de espesor.

Con independencia de la documentación presentada resaltar que:

• Solo habrá un acceso a garaje por comunidad, que será el definido en los planos por la Avda de Leioa, por lo que el acceso existente por la C/Juan Prado deberá eliminarse al ejecutarse la urbanización de la acera.

• Con independencia de las afecciones que haya las cotas de la acera existente y en lo que afecta al itinerario peatonal se mantendrán, debiéndose ejecutar el avance de acera correspondiente en la zona de estacionamiento. El ajuste de cotas desde la calzada a la acera, para el acceso se llevara a cabo en este avance.

• El acceso de vehículos deberá ejecutarse con bordillo de granito de 15x20 de las mismas características que el existente, conforme al replanteo que en su día se haga con los técnicos municipales, que se ajustará en todo caso al detalle que se adjunta

Las modificaciones en la acera que afectan al mencionado avance, deberán llevarse a cabo conforme al replanteo e indicaciones que se den “ in situ” en su momento, si bien en cualquier caso y tanto en lo que afecta a las pendiente

horiek irisgarritasun-araudiari egokitu beharko zaizkio, eta etxebizitzako sarbideak (oinezkoenak/ibilgailuenak) egokitu beharko zaizkie ukitutako espaloietan eta galtzadetan lehendik dauden kotei.

Arestian azaldutakoaz gain:

- Zama-lanetako maniobren ondorioz eta/edo obrek makinak mugitzearen ondorioz narriatzen den zoladura birjarri egin beharko da.
- Espaloietan eta oinezkoentzako guneetan dauden kutxatilen estalkiak baldosaz estaltzeko modukoak izan behar dira, eta orain dagoen zoladura mota berarekin errematatuko dira.
- Galtzadan kokatuta geratzen diren estalkiak sendotu egingo dira, ibilgailuen D-400 motako trafikoari eutsi ahal izateko.

ARGIZTAPENA.

Argiztapen publikoko zerbitzuari dagokionez (inguruko hiri-espazioetan zerbitzu hori badago), behar bezala kontserbatuko dira lehendik dauden instalazioak, batez ere Leioa etorbidean eta kale horretatik garajerako sarbidean, halakorik egiten bada (apaingarri motako luminariak, altzairuzko xaflazko 3,5 metroko zutabeetan jarriak eta lurpeko linea elektriko baten bidez elikatuak) eta inguruetan, argi-puntuak, kanalizazioak eta linea elektrikoak ez kaltetzeko moduan. Obrarako, lurzatirako, eraikinetarako edota etxebizitzetarako sarbideak premisa horien arabera kokatuko dira, eta une oro bermatuko dira instalazioen funtzionamendu- eta segurtasun-baldintzak eta espazio publikoetako

transversal como a la longitudinal estas deberá ajustarse a la normativa de accesibilidad, resaltándose que en todo caso deberán ser los accesos de la vivienda ( peatonal / vehículos) los que se adapten a las cotas ya existentes en las aceras y calzadas afectadas

Además de lo mencionado anteriormente:

- Se deberá reponer todo aquel pavimento que sufra deterioros como consecuencia de las maniobras de carga y descarga y/o movimiento de maquinaria originado por las obras.
- Las tapas de arquetas que queden ubicadas en las aceras y zonas peatonales deberán ser embaldosables, rematadas con el mismo tipo de pavimento existente.
- Las tapas que queden ubicadas en calzada, serán reforzadas para soportar el tráfico rodado tipo D-400

ALUMBRADO.

En lo que se refiere al Servicio de Alumbrado Público, del que se dispone en los espacios urbanos próximos, se conservarán en correctas condiciones las instalaciones existentes principalmente en la calle Avda Leioa y su posible acceso a garaje resultante desde ésta (luminarias tipo ornamental situadas sobre columnas de chapa de acero de 3,5m de altura y alimentadas a través de línea eléctrica subterránea) y en las zonas próximas, de modo que no sean afectados por las obras los puntos de luz, canalizaciones ni líneas eléctricas, situando los accesos a la obra, la parcela, edificios y/o viviendas de acuerdo con estas premisas y garantizando en todo momento tanto las condiciones de funcionamiento y de seguridad de las instalaciones como las

argiztapen-baldintzak.

Eskatzaileak eta/edo enpresa sustatzaileak urbanizazio proiektuan edo eranskinean jaso beharko dute egingo dituztela arestian aipatutako baldintzak betetzeko behar diren jarduketak, aipatutako instalazioko elementuen kokalekua errespetatuz, eta obrak hasi baino lehen elementu horien oraingo egoera eta kokapena jakiteko behar den dokumentazioa (baita grafikoa ere) bidaliko dute. Horrenbestez, obrak egitean edo obrak amaituta daudenean instalazioetan izandako kalte edo hondatze oro obrei egotzi ahal izango zaio.

Segurtasun-arrazoiengatik, ezin izango dira inola ere manipulatu ez erabili argiztapen publikoko instalazioetako osagaiak, adibidez finkatze-puntuak, eroaleak edo instalazio horietakoak ez diren elementuen euskarriak.

Gaur egun dauden instalazioek funtzionatzen jarraituko dute egiten diren instalazio berriak martxan jarri arte. Horiek, beharrezkoa balitz, kontratistak baliogabetu, deskonektatu eta kendu egingo ditu gero, akatsik eta narriadurarik eragin gabe, Udalaren biltegietara eramango ditu eta beharrezkoak diren erremateak egingo ditu.

Proiektuaren xede diren jarduketen eta obren garapenak ez badu ahalbidetzen gaur egungo argi-instalazioen segurtasuna eta funtzionamendua mantentzea, eta/edo proiektu osoan integratzeko instalazio horiek aldatzea beharrezkoa bada, aurkeztutako dokumentazioan behin-behineko konponbide aukera bat definituko da, aipatutako baldintzak betetzen dituena.

de iluminación de los espacios públicos.

El solicitante y/o empresa promotora deberán considerar en el Proyecto o Anexo de Urbanización la realización de las actuaciones precisas para cumplir las condiciones señaladas anteriormente, respetando la ubicación de los elementos de la instalación ya citados, y remitir previamente al comienzo de las obras la documentación (incluso gráfica) precisa para determinar el estado y situación actual de los mismos. Se entiende que todo daño o deterioro detectado en las instalaciones durante la ejecución o con posterioridad a las obras será imputable a éstas.

Por razones de seguridad, no podrán manipularse en modo alguno ni utilizarse los diversos elementos de las instalaciones de alumbrado público como puntos de fijación, conducción o soporte de elementos ajenos a ellas.

Las instalaciones actuales se conservarán en funcionamiento hasta la puesta en servicio de las nuevas ejecutadas, en su caso, procediéndose posteriormente por parte del contratista a su anulación, desconexión, desmontaje y traslado sin falta ni deterioro a los almacenes municipales y a la realización de los remates precisos.

En caso de que el desarrollo de las actuaciones y obras objeto del proyecto imposibilite mantener la seguridad y el funcionamiento de las instalaciones de alumbrado actuales y/o precise su modificación para integrarlas en el conjunto del proyecto, se definirá en la documentación presentada una solución provisional alternativa a la misma que cumpla con los

Hori guztia bereziki hartu beharko da kontuan, proiektatutako kokapenaren inguruan bi argi-puntu daudelako lurzatian ibilgailuak sartzeko.

condicionantes ya indicados. Este hecho deberá considerarse especialmente dada la existencia de dos puntos de luz en las proximidades de la ubicación proyectada para la entrada de vehículos en la parcela.

Saihestuko da tokian lehendik dauden instalazio, altzari edo zerbitzuak ukitzea (argiteria publikoa, esate baterako), eta une oro ziurtatuko da instalazioetako elementuetara (kutxatilak, kaxak, kableak, argi-puntuak…) iristeko aukera, beharrezkoak diren mantentze-lanak egin ahal izateko; gainera, kontuan hartu behar da lan horiek baliabide mekanikoak erabiltzea eska dezaketela.

Se evitará la afección a instalaciones, mobiliario o servicios ya existentes en el lugar, como es el caso del alumbrado público, posibilitando el acceso en todo momento a los elementos (arquetas, cajas, cableado, puntos de luz…) de las instalaciones para realizar las labores de mantenimiento que requieran, considerando que estos trabajos pueden precisar medios mecánicos.

Instalazioen diseinuak, zuinketak eta geroko exekuzioak iraun bitartean, kontuan hartuko da kanalizazioak eta linea elektrikoak espazio libreetan zehar egin behar direla, zuhaitzen lerrokaduretatik urrun, sustraiek edo adarrek ez ditzaten kaltetu, eta, espaloien kasuan, eraikinen fatxadetatik edo finken itxituretatik gertu. Argi-puntuen kokalekua zehazterakoan, natura-, eraikuntza- eta urbanizazio-elementuak kontuan izango dira (zuhaitzak, altzariak, bideak, etab.), argiaren kalitatea bermatze aldera.

Durante el diseño, replanteo y la futura ejecución de las instalaciones se tendrá en cuenta que las canalizaciones y líneas eléctricas deberán discurrir por espacios libres alejados de las alineaciones de árboles para evitar que sean afectadas por las raíces o ramas y, en el caso de aceras, próximas al cierre de las fincas o a las fachadas de las edificaciones. La situación de los puntos de luz se definirá considerando la existencia de otros elementos naturales, constructivos o de urbanización (arbolado, mobiliario, vialidad...), de modo que se garantice la calidad del alumbrado.

Azkenik, egin beharreko instalazioak dokumentuen bidez definitu eta justifikatuko dira, eta gogoan hartu beharko da erabilitako materialak nahiz obren egikaritzeak araudi aplikagarria bete beharko dutela (1955/2000 Errege Dekretua; Behe Tentsiorako Araudi Elektroteknikoari buruzko 842/2002 Errege Dekretua; Kanpoko Argiteriako Instalazioetako Efizientzia Energetikoko Araudiari buruzko

Finalmente, se definirán y justificarán documentalmente las instalaciones a realizar teniendo bien presente que tanto los materiales empleados como la ejecución de las obras deben cumplir la normativa aplicable (RD 1955/2000, RD 842/2002 Reglamento Electrotécnico para Baja Tensión, RD 1890/2008 Reglamento de Eficiencia Energética en Instalaciones de Alumbrado Exterior y Órdenes del Departamento de

1890/2008 Errege Dekretua; eta Eusko Jaurlaritzako Industria, Turismo eta Merkataritza Saileko Aginduak, 1989ko urriaren 20koa eta 2001eko uztailaren 5ekoa, etab.), eta haren barnean Udalarena sartzen dela (Getxoko udalerriko instalazioei eta argiteria publikoari aplikatu beharreko baldintzen plegua eta xehetasun teknikoak).

Industria, Turismo y Comercio del Gobierno Vasco de 20 de octubre de 1989 y de 5 de julio de 2001, etc.), en la que se incluye la municipal (Pliego de Condiciones y Detalles Técnicos aplicables a instalaciones de alumbrado público en el municipio de Getxo).

Okerreko interpretaziorik ez egiteko, informazioa besteren bidez oker ez jakinarazteko eta instalazioen zuinketa egiteko, sustatzaileak eta behe tentsioko instalatzaile baimendunak (instalazioa gauzatu behar duena) zerbitzuaren ardura duten udal-teknikariekin harremanetan jarri behar dute 944660180 telefono-zenbakian.

